



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TXOSTENA. GAIA: AZOKAK BERRIRO IREKITZEA ALARMA- EGOERAREN II. DESESKALADA-FASEAN.

LEA/AVC 441-SUST-2020

Aurkibidea:

I. ANTECEDENTES Y OBJETO	1
II. LIBERTAD PARA REALIZAR LA ACTIVIDAD COMERCIAL	4
III. LIBERTAD PARA EL EJERCICIO DE LA ACTIVIDAD COMERCIAL Y LIMITACIONES PARA LA REAPERTURA DE MERCADOS DE VENTA AMBULANTE EN LA FASE II DEL PLAN DE DESESCALADA DEL ESTADO DE ALARMA.....	6
1. Administración Pública, regulación y libre competencia.....	6
2. Libertad de la actividad comercial y restricciones administrativas para la apertura de mercadillos en la fase de desescalada del estado de alarma.....	8
A. Justificación en imperiosas razones de interés general	8
B. Proporcionalidad	8
C. Discriminación entre operadores	10
IV. CONCLUSIONES	11

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea
Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazi bezala osatuta 2020ko ekainaren 3an eginiko bileran, txosten hau onartu du LEA/AVC 441-SUST-2020 espedientean.

I. AURREKARIAK ETA XEDEA

1. COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko, Espainiako gobernuak alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez. Egoera hori bost aldiz luzatu da; azkenekoz, 2020ko ekainaren 7ra arte.



2. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretu horren 10. artikuluan, euste-neurriak jasotzen dira merkataritza-lokal eta -establezimenduetarako, ostalaritzako eta jatetxeetako jardueretarako edo artxibategietarako, besteak beste. Artikulu horren 6. apartatuan, aurrekikusten da Osasun ministroari eskumena ematea aurreko apartatuetan adierazitako neurriak, tokiak, establezimenduak eta jarduerak aldatzeko, handitzeko edo murrizteko baldin eta osasun publikoko arrazoi justifikatuak badaude; beraz, etena beste kasu batzuetara zabal daiteke, beharrezkotzat joz gero.
3. Mugikortasuna eta harreman soziala murrizteko Alarma Dekretuaren bidez ezarri ziren aparteko neurriak gradualki jaisteko prozesu bat hasi da.

Hala, Ministro Kontseiluak normaltasun berri baterako trantsiziorako plan bat onartu zuen 2020ko apirilaren 28an, normaltasuna lortzeko parametro eta tresna nagusiak ezartzeko (Deseskalada Plana). Lau fasetan (0 fasetik 3 faserara) antolatutako prozesu horrek mailakatua izan behar du, eta jarraibide-aldaketetara egokitze modukoa, datu epidemiologikoen bilakaeraren eta hartutako neurrien eraginaren arabera beharrezkoa balitz ere.

Plan horren helburu nagusia da: osasun publikoa zainduta, eguneroko bizitza eta jarduera ekonomikoa pixkanaka suspertzea, epidemiak herritarren osasunerako dakarren arriskua minimizatuz eta Osasun Sistema Nazionalaren ahalmenak gainezka egitea saihestuz.
4. Euskal Autonomia Erkidegoa normaltasun berri baterako trantsiziorako planaren 2. fasean dago (Deseskalada Plana).
5. Azoka ibiltariei dagokienez, ¹udalei dagokie azoka horiek berriro irekitzea, osasun-agintaritzak Covid-19 pandemiaren transmisioa saihesteko ezartzen dituen baldintzen arabera.
6. Horri dagokionez, Osasuneko ministroak SND/414/2020 Agindua eman zuen maiatzaren 16an, Deseskaladaren II. faserako, alarma-egoera deklaratu ondoren Estatu osoan ezarritako murrizketa jakin batzuk malgutzeko.²

¹Ikus Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.34 artikulua.

² SND/414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa, zeinaren bidez malgutzen baitira alarma-egoera deklaratu ondoren Estatu osoan ezarritako murrizketa jakin batzuk, normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 2. fasea aplikatuz. BOE, 138 zk., 2020/05/16koa.



Merkataritza-jarduera aire librean garatzen duten azokei dagokienez (hemendik aurrera azoka txikiak), honako hau xedatzen du Ministerio Aginduak bere 11.5 artikuluan:

Beren jarduera bide publikoan aire zabalean edo salmenta ez sedentarioa egiten duten azokek –normalean azoka txikiak esaten zaienak– beren jarduera berriro hasi badute, maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduari jarraikiz, edo hasten badute dagokion udalak hala erabakitzen duelako agindu hau indarrean sartzeko denetik aurrera, ohiko edo baimendutako postuak herenera murrizten direla bermatuko beharko da, eta bezeroen kopurua mugatuko da, bi metroko distantzia soziala gordetzeko.

Jarduera hori egiteko, udalek gainazala handitu dezakete, edo egun gehiago ezarri, aipatutako mugarekin lortzen den ondorio bera sortzeko.

Zehaztu behar bada zer merkatarik gara dezaketen beren jarduera, **udalak lehenets dezake elikagaiak eta premiazko produktuak saltzen dituztenak izatea, ziurtatuz kontsumitzaileek ez dituztela produktu horiek manipulatzeko.**

Udalek **ezarriko dituzte postuen arteko distantzia gordetzeko eta azoka mugatzeko baldintzak, langileen, bezeroen eta oinezkoen segurtasuna eta haien arteko distantziak bermatzeko.**

7. Aurretik, Osasun Ministerioak SND/386/2020 Agindua eman zuen, maiatzaren 3an³, udalei azoka txikiak irekitzeko baimena ematen ziena, betiere postuen arteko distantziak gordetzeko eta azokak mugatzeko baldintzak errespetatuta, modu horretan langileen, bezeroen eta oinezkoen segurtasuna eta haien arteko distantzia bermatzeko. Agindu horretan, ohiko edo baimendutako postuak % 25era mugatzen ziren, eta edukierak ohikoaren herenetik beherakoa izan behar zuen, edo, bestela, gainazal gehiago erabil zitekeen, aipatutako muga horren ondorio bera sortzeko.

Agindu berean, elikagaiei eta premiazko produktuei ematen zitzaien lehentasuna, betiere saiaturik kontsumitzaileek ez zitzatela manipulatzen merkaturatutako produktuak.

Geroago, Osasun ministroak SND/399/220 Agindua eman zuen, maiatzaren 9an, zeinaren bidez hainbat gizarte-murriztapen malgutzen baitziren, eta txikizkako merkataritza eta zerbitzu-prestazioak garatzeko baldintzak zehazten.⁴ Agindu horretan, ezartzen zen udalek ezarriko dituztela postuen arteko distantzia gordetzeko eta azoka mugatzeko baldintzak, langileen, bezeroen eta oinezkoen segurtasuna eta haien arteko distantziak bermatzeko. Agindu horretan ere, ohiko

³ SND/386/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, zeinaren bidez gizarte-murrizketa jakin batzuk malgutzen baitira eta txikizkako merkataritzaren jarduera, zerbitzu-prestazioa eta ostalaritza- eta jatetxe-jarduerak garatzeko baldintzak ezartzen baitira COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiak gutxien ukitu dituen lurraldeetan BOE, 123. zk., 2020ko maiatzaren 3koa.

⁴ SND/399/2020 Agindua, maiatzaren 9koa, zeinaren bidez malgutu baitziren alarma-egoera deklaratu ondoren Estatu osoan ezarritako murrizketa jakin batzuk, normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 1. fasea aplikatuz. EAO, 130. zk., 2020ko maiatzaren 9koa.



edo baimendutako postuak % 25era mugatzen ziren, eta edukierak ohikoaren herenetik beherakoa izan behar zuen, edo, bestela, gainazal gehiago erabil zitekeen, aipatutako muga horren ondorio bera sortzeko.

Arau berean, elikagaiei eta premiazko produktuei ematen zitzaien lehentasuna, betiere saiaturik kontsumitzaileek ez zitzatela manipulatu merkaturatutako produktuak.

8. Hala, udalek berriro ireki behar dituzte azoka txikiak, baina Covid-19 pandemiaren transmisioa saihesteko neurri mugatzaileak ezarrita.
9. Txosten hau legeak organismo honi lehia efektiboa ekintza ez zehatzaileen bidez sustatzeko ematen dion ahalmenean oinarrituta ematen da.

II. MERKATARITZA-JARDUERARAKO ASKATASUNA

10. Txikizkako Merkataritza⁵ antolatzen duen urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 3. artikulua araberak, merkataritza-jarduera askatasun-printzipioan eta enpresa-askatasunean oinarrituta gauzatzen da, bat etorritik Konstituzioaren 38. artikuluaekin.
11. Konstituzio Auzitegiak adierazi du enpresa-askatasunak, bere dimentsio subjektiboan, inplikatzeko duela enpresak jarduera bat hasteko eta mantentzeko eskubidea duela (Konstituzio Auzitegiaren 83/1984 epaia, ekainaren 24koa). Enpresa-jarduera bat "askatasunez" hasteko eta mantentzeko berme bat dago, eta horrek esan nahi du *partikularrei erabakitzeko askatasuna aitortzen zaiela, enpresak sortu, eta ondorioz, merkaturatu jarduteko ez ezik, enpresaren helburuak ere ezartzeko, eta horrenbestez, enpresaren jarduera zuzendu eta planifikatzeko, enpresaren baliabideak eta merkaturatuaren baldintzak aintzat hartuta.. Beraz, askatasun hori jarduteko askatasun gisa ulertu behar da, enpresak merkaturatu aukeratzeko duen askatasun gisa (Konstituzio Auzitegiaren 96/2013 epaia, apirilaren 23koa, Konstituzio Auzitegiaren epai hauen aipamenarekin: 225/1993, uztailaren 8koa, eta 96/2002, apirilaren 25koa).*
12. Honako hau ezartzen du maiatzaren 27ko Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legearen ⁶4. artikulua: "merkataritza-jarduera lehia aske eta leialaren

⁵Urtarrilaren 15eko 7/1996 Legea, Txikizkako Merkataritza antolatzeko BOE, 15 zk., 1996ko urtarrilaren 17koa.

⁶Merkataritza jarduerari buruzko 7/1994 Legea, maiatzaren 27koa. EHAA, 111. zk., 1994ko ekainaren 13koa.



printzipioaren arabera garatuko da, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren printzipioa kontuan izanez, merkatu-ekonomiaren eta haren plangintza orokorraren esparruan”.

- 13.** Txikizkako Merkataritza Antolatzeko Legearen 53. artikuluan honela definitzen da salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa: merkataritzako establezimendu iraunkor batetik kanpo merkatariek ohiz, noizbehinka, aldizka edo jarraian egindako salmenta, behar bezala baimendutako merkataritza-instalazio desmuntagarri edo eramangarrietako inguru edo tokietan egiten dena, kamio-dendetan barne.

Edozein kasutan, salmenta ez sedentarioa bakarrik egin ahal izango da azoka finko, aldizkako edo noizbehinkakoetan eta urte-sasoiko produktuak saltzeko bide publikoetan instalatutako tokietan.

- 14.** Txikizkako Merkataritza Antolatzeko Legearen 54. artikuluan arabera, udalen ardura izango da kasuan kasuko udalerrietan salmenta ibiltarian aritzeko baimenak ematea, indarreko legerian jasotako arau zehatzen arabera, eskumenen nahitaezko esparruari jarraikiz.

- 15.** Merkataritza ibiltarian dihardutenek kontsumitzaileek erraz ikusteko moduan jarrita eduki beharko dituzte beren datu pertsonalak eta dagokion udal-baimena erakusten duen agiria, baita egon daitezkeen erreklamazioak bidaltzeko helbidea ere.

- 16.** Merkataritza Jarduera Antolatzeko Legearen 16. artikuluan ezartzen denez, udalek beren udalerriko salmenta ibiltaria arautu dezakete. Udal-araudian lekuak, salmentarik gabeko perimetroak, aldizkakotasuna, ordutegia eta baimendutako produktuak zehaztuko dira eta kaleko salmenta moten ezaugarriak jasoko dira, honako hauek bereizita:

Aldian behingo azoka txikiak: tradiziozkoak edo berriak diren saltzeko postuen multzo hauek espazio publikoko leku jakin eta zehatz batzuetan jartzen dira astean behin. Horiek astean bi aldiz antolatu ahal izango dira gehienez

b) Feriak, jaiak, herriko ospakizunak direla eta, noizean behin ezartzen diren azokak.

c) Denda-kamioietan edo kaleetan jartzen diren postuetako salmentak, egoera eta baldintza jakinetan baimendutakoak.

- 17.** Udalerrri guztietan zehaztu ahal izango da hiri-perimetro bat, zeinetan ezin izango den kaleko salmentarik egin. Perimetro hori zehazteko hirigintzari, ingurumenari edo irisgarritasunari buruzko irizpideak erabiliko dira. Merkataritza Jarduerari buruzko Legearen 17. art.)

Feriak, jaiak eta herriko edo ohiturazko ospakizunak direla eta ezartzen diren azoken kasuan, udalerrri bakoitzak zehaztuko du horietako zeintzuk geratzen diren



aurreko artikuluan aipatutako kaleko salmentarako debeku-perimetrotik kanpo. Merkataritza Jarduerari buruzko Legearen 18. art.)

III. MERKATARITZA-JARDUERARAKO ASKATASUNA ETA KALEKO SALMENTAKO AZOKAK ALARMA-EGOERAREN II DESESKALADA-FASEAN BERRIRO IREKITZEKO MUGAK

18. Alarma-dekretuaren ondorioz, jendearentzako ireki ezinik geratu dira merkataritza-establezimenduak eta horien antzeko jarduera-zerbitzuak, Covid-19 pandemiari eusteko neurri gisa, alde batera utzita dekretuan espresuki adierazitako salbuespenak.
19. Alarma-egoeran hartutako murrizketa-neurriak malgutzeko fasean, Osasun ministroak udalei baimena eman die azoka txikiak berriro irekitzeko, betiere neurri higieniko, sanitario eta sozialak hartuta. Gainera, mugak ezarri ditu baimendutako postuen portzentajea, baita langileen, bezeroen eta bisitarien kopuruan ere, kutsatzea saihesteko.
20. Azoka txikiak murrizteko neurriak malgutzen joan dira, II. Faseari buruzko SND411/2020 Agindura iritsi arte. Udalek honako baldintza hauek zaindu behar dituzte azoka txikiak irekitzeko:
 - postuen arteko distantzia gordetzeko eta azoka mugatzeko baldintzak ezartzea, langileen, bezeroen eta oinezkoen segurtasuna eta haien arteko distantziak bermatzeko.
 - ohiko edo baimendutako postuak heren batera mugatzea.
 - bezero-kopurua mugatzea, bi metroko distantzia soziala bermatzeko.

Gainera, udalek, jarduera hori egiteko, gainazala handitu dezakete, edo egun gehiago ezarri, aipatutako mugarekin lortzen den pareko ondorioa sortzeko.

Azkenik, aukera dute elikagaiak eta premiazko produktuak saltzen dituztenak lehenesteko, ziurtatuz kontsumitzaileek ez dituztela merkaturatutako produktu horiek manipulatzeko.

1. Administrazio publikoa, erregulazioa eta lehia askea

21. Konstituzioaren 103.1 artikulua honako hau ezartzen du: «Administrazio publikoak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez».



- 22.** Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinan, behin eta berriro agertzen da Administrazioa Lehia Defendatzeko Legearen mende dagoela, eta, oro har, lehia askea eremu ezberdinetan bermatzen duen legeriaren mende.⁷
- 23.** Azaroaren 23ko 17/2009 Legeak, zeina zerbitzu-jarduera baterako irispidea izateari eta zerbitzu horretan jarduteari buruzkoa baita, ezartzen du zerbitzu-emaeleek askatasuna dutela Estatuan kokatzeko eta zerbitzu-jarduera bat gauzatzeko.⁸
- 24.** Jardueretarako irispidea izateko eta zerbitzu horietan jarduteko justifikaziorik gabeko oztoporik ez jartzeak produktibitatea bultzatzen du, hazkunde ekonomikoa eta okupazioa ahalbidetzen ditu, eta, azken batean, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen ongizatea handitzen du.
- 25.** Hala ere, kasu batzuetan, Administrazioak, modu justifikatuan, azokan irispidea izateko edo jarduteko mugak onar ditzake, edo sortu. Horretarako, mugek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:⁹
- Premia: baimen-araubidea ordena publikoa, segurtasun publikoa, osasun publikoa eta ingurumenaren babesa direla medio justifikatzen badira, edo baliabide naturalen eskasiak edo eragozpen tekniko nabariak izateak merkatuko eragile ekonomiko kopurua mugatzen badute.
 - Proporzionaltasuna: mugatzea bada helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena, emaitza bera lortzeko aukera ematen duen neurri arinagorik ez dagoelako.
 - Diskriminaziorik eza: Eragile ekonomiko guztiek eskubide berak izango dituzte lurralde nazional osoan, eta, agintaritza eskudun guztiei dagokienez, ez dira diskriminatuko bizilekua edo kokatzelekua direla medio.
- 26.** Muga horiek legegileak sartu ditu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen araudian. Hala, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren¹⁰ urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikuluan, ezartzen da administrazio publikoek honako hauek bete beharko dituztela baldin eta, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide

⁷Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Salaren 3. Sekzioaren epaia, 2009ko ekainaren 2koa (RC 5763/2006). Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, 2007ko ekainaren 19koa (RC 9.449/2.004); Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, 2008ko azaroaren 4koa (RC 5837/2005).

⁸17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretarako irispidea askea izateari eta zerbitzu horietan jarduteari buruzkoa BOE, 283 zk., 2009ko azaroaren 24koa.

⁹Zerbitzu-jardueretarako irispide askea izateari eta zerbitzu horietan jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera (2009ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk.). Merkatu-batasuna bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak emandako idazketa (BOE, 295. zk., 2013ko abenduaren 10ekoa).

¹⁰40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. BOE, 236 zk., 2007ko martxoaren 23koa.



indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak betetzea eskatzen badute:

- Proporzionaltasun-printzipioa aplikatzea, eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratzea.
- Interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitzea, eta lortu nahi diren helburuak lortzeko egokia dela justifikatzea.
- Tratu-desberdintasun diskriminatzailek ez eragitea.

2. Merkataritza-jarduerarako askatasuna eta administrazio-murrizketak alarma-egoeraren deseskalada-fasean azoka txikiak berriro irekitzeko.

27. Udalei dagokie azoka txikiak berriro irekitzea, eta, neurri horrek merkataritza-askatasuna murriztu dezakeenez, interes publikoko ezinbesteko arrazoi bidez justifikatu beharko dituzte, eta proportzionalak eta ez-diskriminatzaileak izan beharko dute. Bestela, merkatariek enpresa askerako eta merkataritza-askatasunerako duten eskubidea mugatu liteke.

A. Interes orokorreko ezinbesteko arrazoiek justifikatzea

28. Herritarren osasuna eta segurtasuna zaintzeari dagokionez, Covid-19 pandemiaren barruan azoka txikiak berriro irekitzea justifikatuta egongo litzateke, betiere merkataritza-jarduera mugatuta badute.

Izan ere, euste-neurriak malgutzea (azoka-mota hauek irekitzea kasu) justifikatuta dago Covid-19 pandemiak bilakaera egokia duelako eta **osasun publikoa zainduz** eguneroko bizitza eta jarduera ekonomikoa erreperatu nahi direlako, betiere pandemiak biztanleriaren osasunean ahalik eta gutxien eragin dezan saiatuz eta Osasunaren Sistema Nazionalak gainezka egin dezan saihestuz.

B. Proporzionaltasuna

29. Azoka txikiak berriro irekitzeko neurriekin batera, neurri mugatzaileak jarri beharko lirateke, pandemiaren arabera. Ezartzen den mugak helburua lortzeko dagoen tresnarik egokiena izan behar du, emaitza bera lortzeko aukera ematen duen neurri arinagorik ez dagoenean erabiltzen dena.
30. Konstituzio Auzitegiaren 1991ko martxoaren 22ko STC66/1991 epaian, ezartzen da Konstituzioaren arabera zilegi den helburu bat lortzeko hartzen diren neurriek proportzionalak izan behar dutela, osasun publikoa dela-eta pandemiari aurre egiteko hartzen direnak bezala:



“(…) Konstituzioak aitortzen dituen eskubideak ez dira absolutuak, baina eskubide horiei ezar dakizkiekeen murrizketak onargarriak izango dira proportzionalak badira, halako moldez, non, batetik, egokiak izateagatik lagundu egingo duten lortu nahi den zilegizko helburu konstituzional hori erdiesten, eta, bestetik, beharrezkoak izateagatik sakrifizio handiagoa eskatuko luketen beste neurri batzuk baino nahiago izango diren nahitaez, babestutako askatasun-eremurako. (…)

- 31.** SND 414/2020 Aginduak, lehenik eta behin ezartzen du higiene-, osasun- eta gizarte-neurri orokorrak hartzeko beharra, langileen, bezeroen eta bisitarien arteko kutsadura saihesteko. (4-6 artikulua)
- 32.** Gainera, baldintza bereziak ezartzen dira txikizkako merkataritza-establezimendu eta -lokaletan jarduera garatzeko eta antzeko zerbitzuak emateko. Zehazki, 5. paragrafoan, operadore ekonomikoen eta bezeroen joan-etorrien mugak jasotzen ditu aire zabalean edo salmenta ez sedentarioan garatzen diren azoka ibiltarietarako.
- 33.** Azoka-egun bakoitzeko postu-kopuruari dagokionez, baimendutako edo ohiko lanpostuen % 30eko muga ezartzen du, baina udalei mekanismoak ematen dizkie operadore ekonomikoen muga hori arintzeko:
- **Azoka txikia dagoen eremuaren azalera handitzea.**
- Udalak horrelako merkataritzarekin bateragarria den lurzorua badu, hirigintza- eta higiene-kontrol sanitarioko berme eta neurriak dituen, azoka ibiltaria instalatzeko eremua handitu ahal izango du, dela bertan, dela tradizionala ez den beste espazio batean, saltzaileen merkataritza-interesentzat hain garestia ez den neurria denean.
- **Azoka-egun berriak prestatzea**
- Azoka-egun gehiago baimentzea, saltzaile gehienek beren merkataritza-jarduera egin ahal izan dezaten. Horri esker, saltzaile gehienek beren merkataritza-jarduera egin ahal izango dute.
- 34.** Bezeroen eta bisitarien kopurua mugatzeari dagokionez, ez dago edukieraren portzentajezko mugarik, SND 386/2020 eta 399/2020¹¹ aginduetan bezala. Hala ere, bi metroko distantzia soziala gorde behar da uneoro.

¹¹SND 386/2020 Aginduaren 7.4. artikuluan, edukiera ohikoaren herenera mugatu zen. Ildo beretik doa SND 399/2020 Aginduaren 10.6 artikulua.



35. Azkenik, postuen arteko distantzia gordetzeko eta azoka mugatzeko baldintzak, langileen, bezeroen eta oinezkoen segurtasuna eta haien arteko distantziak bermatzeko.¹²

C. Operadoreen arteko diskriminazioa

36. Ezarri behar bada zer merkatarik egin dezaketen beren jarduera, SND 411/2020 Aginduak ezartzen du udalak lehentasuna eman ahal izango diela elikagaiak eta premiazko produktuak merkaturatzen dituztenei. Lehentasun horren oinarria alarma-egoeran hornidura publikoa babestea da.
37. Arauak ez du ezer esaten merkatura daitezkeen elikagai-motei buruz, ezta produktuaren jatorriaren tokikotasunari buruz ere. Beraz, udalak, elikadura-produktuen edo premiazkoen azoka ez-sedentarioak berriro irekitzeko baimena ematerakoan, elikagai-produktuen edo antzeko ekoizleen artean merkataritza-baldintza desberdinak ezarriko balitu, diskriminazioa litzateke, eta hori ordenamendu juridikoaren aurkakoa litzateke (Konstituzioaren 14. art.).
38. Izan ere, merkataria bereiztuko balira merkaturatzen dituzten produktuen arabera, inolako justifikaziorik gabeko diskriminazioa eragingo litzateke, eta, ondorioz, merkataria batzuk beste batzuk baino baldintza okerragoetan lehiatuko lirateke.

¹²Ikusi 2020ko apirilaren 6ko Agindu indargabetua, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldi baterako eteten baitira EAEko nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako merkatu eta azoka tradizionalak, eta arautzen baita EAEko zenbait udalerritan denda-ibilgailuak baliatuz saltoki ibiltariak gauzatzen duten jarduera Covid-19 birusak sortutako pandemia dela eta. Agindu horren 2. artikuluan, merkatu-mota horietan jarraitu beharreko jarraibideak ezartzen dira: "a) postuei dagokienez: pasabide batek banatu beharko ditu postuak, eta 6 metro egon beharko da postutik postura. Lau metroko gutxieneko banaketa baimentzen da aldean artean". Postu baten barruan, saltzaileek gutxienez bi metroko distantzia gorde beharko dute beren artean, eta, lanpostuaren neurriek ezinezko egiten badute distantzia fisiko hori egotea, operadore bakar batek egingo du merkataritza-jarduera. Postuen arduradunek erabili eta botatzeko eskularruak jarri beharko dituzte bezeroen eskura. Dena dela, ezinbestekoa izango da eskularruak erabiltzea salgai dauden produktuak ukitzeko.. Era berean, gel desinfektatzailea banatzeko gailuak izan beharko dituzte, saltzaileek eta erabiltzaileek erabiltzeko. b) Erabiltzaileei dagokienez: beraien artean bi metroko distantzia gorde beharko dute gutxienez. Udaltzaingoak, Babes Zibileko boluntarioen elkarteek eta, oro har, agintaritzaren agenteek zainduko dute gutxieneko baldintza horiek errespetatzen direla, eta, beharrezkoa izanez gero, sarbidea kontrolatuko eta arautuko dute, baimenik gabeko sarrerak, jendetza pilatzea, eta, ahal den neurrian, salerosteko helburua ez den edozer kontaktu sozial saihesteko. c) Garbiketari eta bilketari dagokienez: merkatuak sortutako hondakinak poltsetan utzi beharko dira, garbiketako eta zaborra biltzeko udal-zerbitzuek horretarako jarritako edukiontzien barruan, eta, nolahi ere, udal-ordenantzetan edo -bandoetan ezartzen diren zehaztapenak bete beharko dira."



IV. ONDORIOAK

- 39.** COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan, osasun publikoa babestu behar da, eta horrek jende-pilaketa saihestea eskatzen du, Covid-19aren transmisio-arriskua, pandemiari lotua, eragozteko.
- 40.** Udalei dagokie horrelako azokak berriro irekitzeko erabakia hartzea, bai eta merkatarien, langileen, kontsumitzaileen eta bisitarien merkataritza-jarduera garatzean osasuna babesteko behar diren neurriak ezartzea ere.

Bestela, merkatariak enpresa askerako eta merkataritza-askatasunerako duten eskubidea mugatu liteke.
- 41.** Azoka ibiltariak berriro irekitzeko baldintzek interes orokorreko arazoietan oinarritu behar dute, eta proportzionalak eta ez-diskriminatzaileak izan behar dute.
- 42.** SND 411/2020 Aginduak baldintzak ezartzen ditu udalek azoka ibiltariei berriz ekin ahal izateko Deseskaladaren 2. fasean, eta aukera ematen du salmenta-postuen eta edukieraren mugak arindu ditzaketen neurriak hartzeko.
- 43.** Udalek azoka ibiltariak berriro irekitzeko eskatzen dituzten neurriak proportziozkoak izango dira, hau da, merkatarien, langileen, kontsumitzaileen eta bisitarien osasuna bermatzeko behar bestekoak.
- 44.** Azokako postuen kopuruaren % 30eko muga konpentsatu daiteke, udal-neurriak ezarriz azoka garatzen den espazioa handitzeko edo aldatzeko edo beste egun batzuetan egiteko, eta, hori da, arazoikoa eta posible izanez gero, aukerarik onena, ukitutako merkatariei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko eta, aldi berean, osasun-bermeei eusteko.
- 45.** Udalak elikagai-produktuen edo antzeko ekoizleen artean merkataritza-baldintza desberdinak ezarriko balitu elikagaien edo premiazko produktuen azoka ez sedentarioak berriro irekitzeko baimena ematerakoan, diskriminazioa izango litzateke, eta hori ordenamendu juridikoaren aurkakoa litzateke.